

Koldo Izagirre

MOLINAORIK EZ BALITZ

Molinao gauza difusoa da, ez baita gauza, gauza balitz muga batzuk edukiko lituzke. Mugarik ez edukitze horrek, ordea, halako xarma berezia ematen dio, lanbroan barrena bilatu beharreko zerbait balitz bezala: haurtzaro eta gaztaro askoren leku mitikoa da eta, gehiegitxo esatea badirudi ere, ez dakit ez ote den bihurtu egungo jubilatuen ere.

Zenbat ote dago Antxoko elizaurretik Molinaoraino? Kilometro bat? Hamar minutu pausaje lasaian? Hor nonbait. Eta hala ere, Molinao urruntasuna da, kaleartetik irtetea, mendira abiatzea mendira joango ez bagara ere, zibilizazioa uztea, San Marko alderako ataka, arnasa hartzeko iragan beharreko zoko ospela, atzeratze estrategiko guztien aukera bakarra. Aukera edo iturburu, Antxo familia askok egin zuten ihes Bilbora 1936an, hegazkin faxistek Campsa bonbardatu eta herri osoa kiskaliko zuten beldurrez.

Baratzerako lurak izan behar ziren Antxokoak, baina Mandasko Dukeak nahia go izan zituen eraikuntzarako saldu, eta urte luzez, ez baratzerik ez lorategirik eduki ez duen Gipuzkoako herri bakarra izan dugu Antxo. Lurra, adiera telurikoan, Molinaok eman dio. Horregatik ere bada mitikoa Molinao, han zegoelako Atanasioaren baratzea esaterako, gure irudimenean, Atanasio bera ezagutzen ez bagenuen ere, izenak hala bideratuta, Satanas adina gaiztoa zen gizona. Ura, lurra, berdeta-

suna, baratzezaina, umeona ez beste inorena zen putzu partikular hartan bainatzea, naturarekiko lehen harreman lausotua genuen: bizia eta hiltegia, ureko arratoiak eta behor lotuak, ijitoak eta futbol zelaia, petrolioa eta panpanoak zeuzkan sagardotegia...

Alde batean portua, bestean Molinao. Horiek dira Antxoren ipar-hegoak.

Denok dakigu gaskoinez dela
Molinao Errotaberri
herri askoren neke isilak
egin gintuela herri

Menditaratean erreka jaio da. Ez da han jaio, baina ez du axola, Molinaok eman dio izena Antxon itsasoratzen den errekarari. Itsasgorak ibai egiten duen ur xirripa, noski, Antxo sortu baino lehenagokoa dugu, eta Molinao esaten zitzaion gaur egun Antxo den honi, erreka izenaz. Topoaren Antxoko geltokiak Molinao zuen izena oraindik orain. Antxo izeneko geltokia Buenabista eta Oleta arteko sakonduran zegoen, Miramarka edo Miramarkina baserriaren ondoan, Antxo baserria egon zen itsasertzaren parean. Molinao, beraz, Antxoren etimologia dela defenda liteke, Antxo nondik datorren galdetzen digutenean, zer esan nahi duen, Molinao esan nahi duela bota genezake lasai. Hari esker, haren gainean eraikia da Antxo. Bi lerro perpendikularrek gurutzatzen eta kokatzen dute Pasaiaren hirugarren auzategia: topoaren burdinbideak eta Molinao ibaiak. Antxo, toporik gabe, oso bestelakoa izango litzateke, monotonoagoa seguru aski. Molinao ibaia gabe, dotoretasuna ematen dion elementu bakanetariko bat galduko luke.

Bai, noski, ibai horrek dotoretasuna ez ezik kutsadura eman dio Antxori, hainbestearinokoa non garai batean antxotar peto zenbaitek behin eta berriz eskatu zuten ibaiaren estaltzea... kiratsa zeriolako. Ez garbitzea edo industrien isurketak debekatzea, estaltzea baizik. Produktibismoan bizi ginen, kutsadura halaberrez jasari beharrekoetan sartzen zen, usain kutsadura handiena Molinaotik zetorren, arrain-irrin fabrikak sortua. Eta Antxon barrena kamioiak berdel jario, eta Antxon barrena Francok harrapatu omen katxalotea...

Altza azpian Antxo ondoan
menditaratean Molinao
errekarekin dakar guretzat
euskara ahorik aho

Antxoko festetan izan den peñarik zaharrena, Molinaokoa izan zen. Txirritak kantatu zuen deskalabratu haren ondotik Antxoko kaleetan agertu zen aurreneko gurdia, karroza alegia, peña honek atera zuen, Peña Molinaok, 1953an. Gaia, ba-

serri bateko sukaldea. Papin, Sasotegi, Landarro, Juanatxone, Iparragirre... Antxoren baserri-erreserba izan dugu Molinao. Ez da harritzekoa beraz, historikoki, Molinao izatea Antxoren euskal eremua. Ez da horren aspaldikoa, Antxon euskaraz ari zen norbaitengatik "Molinaokoa izango da" esatea. Artolatarrak, Arzaktarrak, Berrendotarrak, Gorostiditarrak, Mitxelenatarrak, Oiartzabaldarrak, Urbietatarrak, Iparragirreko nukleo txikia, Altxu, Baleztena, Barandiaran, Iraeta, Zigandatarrak... horiek denak Molinaokoak ziren antxotarrentzat, euskaraz egiten zutenak. Handik hartu du euskara Antxok, Molinaotik. Ez menditik, erreka zokotik baizik: lamiek sortu zuten hemen euskara.

Euskara, Molinaoren bestelako kutsadura.

Asko zor dio Antxok Molinaori, bertakoek, ahoskera gozoan, Moliño esaten dioten zokoari. Pasaiazen zati, portutik etenda, beste Pasaietatik urrundua, zati huts, osagaitz, Antxok ez dauka lagunik, bakardade handian bizi da. Moliñok, bera baino ehun aldiz txikiagoko auzo xatar horrek ematen dio, oraindik ere, zer edo zer izatearen harrotasuna, eta errepideak eta trenbideak ezin eman diezaioketen arnasa, atzeratze estrategiko guztien aukera bakarra.

Putzua, Antxo zen. Moliño, erreka.

Antxo estatikoa da. Antxoren errota, Moliñok mugitu du.

Izugarri galduko du Antxok auzotxo hori galtzen bada, leku mitiko batzuek norberaren irudimena eta herriaren oroimen kolektiboa elikatzen dute. Horietarikoa dugu Molinao, historian txertatua bizi izan delako apal, ilun, ospel... miresgarri.